

## Gure emigrazioa

*Deia, 1977-07-20.*

Inmigranteak, edo etorkinak, aitatzen ditugu askotan. Etorkin hoiek gure etxean daudelako, egunero ikusten ditugulako. Eta batez ere euskerarentzako arazo larri bat direlako.

Emigrante edo joaleak ere aitatzen ditugu. Baina gutxiago. Ez dugu aspaldi hontan Euzkadi-tik langilerik esportatzen.

Esportatzen ditugunak, Unibertsitaterako ikasleak dira. Asko. Nahi eta behar baino gehiago.

Aurten ia 14.000 gaztek bukatu du COU deritzan ikas-maila. Bakoitzak bere herrialdean: 1.137 arabar, 2.592 napar, 3.650 giputz eta 6.426 bizkaitarrek.

Eta gehienak, noski, Unibertsitatera sartu nahi.

Eta Euzkadik behar ditu, gainera.

Baina, erdiak besterik ez du hemen Unibertsitaterik aurkituko. Ez dago tokirik. Tokia izateko, euskal unibertsitarioak Barcelonara edo Salamanca, Zaragoza, Valladolid edo Madrid-era joan behar. Madrid-ek hartuko lituzke denak beretzat, pozik.

Baina ez da gauza.

Bete ditu zituen Unibertsitate zahar guztiak. Berriak egin ditu, eta hoiek ere denak bete ditu leporaino. Ikasleak ezin dute zutik egoteko ere lekurik aurkitu. Milaka ikasle daude kurso batzutan. Irakasleak harbelean idatzi duena ikusteko katalejoak behar dituzte.

Eta hemen gaude gu, euskaldunok, Unibertsitaterik gabe.

Hara oraintxe 14.000 mutil zai.

Erdiak sartzen badira, gainontzeko 7.000 gaztek, non arkituko dute etxean zor zaien tokia?

Gure aberastasunik haundiena, gaztedia eta talentua, galtzeko arriskoan.

Hau da gure esportazioa.

Eta ez gara emigrazio hontaz ia konturatu ere egiten.

Ohitu egin gara!